

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA (ARABA)

Gaikuntza nazionaleko (Erriberabeitiko Udalaren idazkari-kontuhartzailea) toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostua betetzea

Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutakoaren arabera, jakinarazten da Erriberabeitiko Udalaren idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, haren titular M^a. Del Carmen Rojo Pitillas andrea Aiarako Udaleko idazkari izendatu baita, 2019ko maiatzaren 3an, zerbitzu eginkizunetan. Horiek horrela, bost egun balioduneko epea irekiko da gaikuntza nazionaleko zernahi funtzionarioek Erriberabeitiko Udalera bidalitako idazki bidez adieraz dezan interesa duela lanpostu hori aipatutako dekretuak 48. artikulutik 51. artikulura xedatutako legezko zernahi eraren bidez betetzeko.

Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidaliko da: info@riberabaja.eus.

Ribabellosa, 2019ko maiatzaren 8a

Alkatea

MIREN JOSEBE SANTAMARÍA MARTÍNEZ